

Ezpalak

JON TORNER

Aitzol Aramaio zinema zuzendariak apirilaren 30ean estreinatua zuen *Un poco de chocolate* filma. Unai Elorriaga idazlearen *SPrako tranbia* eleberriaren oinarrituta dagoen pelikula aktore nagusiak Daniel Brühl, Hector Alterio, Julieta Serrano eta Barbara Goenaga dira.

Bernardo Atxagaren *Il libro di mio fratello* (Einaudi), *Soinujolearen semea* (Pamiela) liburuaren itzulpenak, Mondello-Palermo Hiria saria jasoko du maiatzaren 24an. Sari hau Italiako sari garrantzitsuenetako bat da eta atzerriko egile batek idatzitako obra onenari ematen diote.

Teresa Landaluce arkitekto eta argazkilaria iruindarrak Nafarroako hiriburuko Centraluz galerian jarri ditu ikusgai bere irudiak. *Auto-erretatuak* izeneko erakusketa maiatzaren 31 arte izango da zabalik.



Izebene Oñederraren *Hezurbeltzak* animazio film laburrak soinu banda onenaren saria irabazi du Alemaniako Trickfilm sariketan. Xabier Erkizia ekoiztu du soinu banda hori. *Hezurbeltzak* filmak beste hiru sari jaso ditu orain arte: animazio film laburrik onenarena Medina del Campoko jaialdian, eta Alcine eta Animadrid jaialdietako bi aipamen bereziak.

Nestor Basterretxea artistak (Bermeo, 1924) Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Zilarrezko Domina jaso zuen pasaden astean Iñaki Goirizelaia Bizkaiko campuseko errektoreordearen eskutik. Gaur egun Montevideo (Uruguai) Euskal Zentroak eskatutako obra batean lanean diharduela azaldu zuen Basterretxea.

Irati Elorrieta (Getxo, 1979) *Burbuilak* izeneko bere lehenengo eleberria plazaratu du Alberdania argitaletxearekin. Elorrieta Berline bizi da eta liburuan kontatzen dituen istorioak ere Alemaniako hiriburuan kokatu ditu.

47 antzerki taldek parte hartuko dute Leioako Umore Azokan

MAIATZAREN 22TIK 25ERA egingo da Leioako Umore Azokaren 9. edizioa. Orotara 47 antzerki taldek parte hartuko dute azokan, eta 49 obra eskainiko dituzte hiriko kaleetan. Euskal Herriko 12 konpainia arituko dira Leioan, eta horietatik seik –Organik, Zero Teatro, Gaitzerdi, Hortzmuga, Malas Kompañias eta Trapu Zaharrak– bertan estreinatuko dituzte euren ikuskizun berriak. Aktoreekin batera, antzerki munduko profesional ugari bilduko dira Leioan, haietako asko programatzaileak. Ana Lopez Leioako Udaleko Kultura zinegotziaren hitzetan, “ikuskizunak erakustez gain, obren salerosketarako esparrua sustatzea da Umore Azokaren helburuetako bat”. Egitarau osoa, parte hartuko duten konpainien inguruko informazioa eta azokari buruzko gainerako datu guztiak www.umoreazoka.org gunean kontsulta ditzakezue.



Uztailaren 24an amaituko da Kimuak egitasmoan parte hartzeko epea

EUSKO JAURLARITZAKO Kultura Sailaren *Kimuak* (www.kimuak.com) egitasmoan parte hartu nahi dutenek, uztailaren 24a baino lehen bidali beharko dituzte euren film laburrak Euskadiko Filmategia Fundaziora. Zine edo bideo formatuan egindako lanak aurkez daitezke, gehienez 30 minutukoak. *Kimuak* programak film laburrak sustatzea, zabaltzea eta banatzea du helburu. Aukeraturako lanak Euskal Herriko zein nazioarteko jaialdietan erakutsiko dituzte.

[Juan Luis Unzurrunzaga Donostiako Gero Axular dantza taldeko zuzendariak Deian](#): «Gure folklorea oso txalotua eta mirestua da atzerrian. Haurrek jasotzen duten sentimendu hau barneratzen dute eta herrian, ikastolan, kalean... jasotzen dituzten mesprezuak gairatzeko armak dira. Oraindik ere dantza neskena, *kaxeroena* eta abarrena dela entzuten dugu gure inguruan».

[Javier Viar Bilboko Arte Eder Museoaren zuzendariak Eusko-news&Media webgunean](#): «Entzuten da halakorik [museo batera joatea aspergarria dela]. Zuk uste duzu gimnasia egitea dibertigarria dela? Oso aspergarria da, baina jendea kemen handiz joaten da gimnasioetara. Aspergarria bada ere, ez du esan nahi ekintza

horien ondorioak baliagarriak ez direnik. Museo bat bisitatzeko gutxienezko ezagutza izan behar da eta, jakina, ezagutza horretara iristeko ahaleginak egin behar ditugu (...) Edertasun hori sumatzen ez dakienak ez du behar bezala bere ezagumena landu».

[Pettik Aizu! aldizkarian, bere diskoak Internetetik doan jaisteko moduan ipiniko lituzkeen galde-tzean](#): «Horretarako norberak ordaindu behar du diskoa. Diskoetxearekin atera baduzu, berari egiten diozu kalte. Neuri berdin dit, Interneten jarritz gero, jende gehiagok entzuteko aukera dago, baina diskoetxea salmentaren sosik gabe geratuko da. Diskoa neuk ateratzeko dirua edukiko banu, ez nuke Interneten jartzeko arazorik izango».